

## POESÍA VASCONGADA

### URTE MUGA BAT: RAMON ARTOLA ZANA-RI, JUAN INAZIO URANGA-K

Gauden illa-ren ogeita bateko egunean osatu dira lau urte, On Ramon Artola zanak utzi ginduela betirako.

¡Nork bete lezakien ark gure artian utzi zuben utz-una!

Bañan gugan arki diran gayak urriyak izanik, ez gentzake inñolako gisatan neurtonzi eder ori bete, alegintzen bagera ere, aipatu detan jaunaren mallara iristeko.

¡Zer biotz aundiko euskaldun jator, Ama Euskara-ren seme ona izan zan gízagajua!

Bakoitzak bere biyotzeko iritziya agertzeko eskubideak izanik, ez deritzot neriak gelditu bear lukiela eskutuan; zeren, nere naiera edo goguak dira, ala zaleturik naguelako, agertzea nere iritzi urri ezer au, esanik ez detala ezagutu euskal ipuigille obeagorik euskara ezagutzen asi nitzanetik gaur daño.

Nik irakurri izan ditut asko aldiz aren ipui egoki egintakuak, bai eta ere, beste biurtzakintza eder eta samur gaiñ gañekuak, zeren aipatuko ditudan ongiyena iruditzen zaizkidanak, emanik toki bereši bat errenkada aben tartian «Egun sentiya» eta «Illunabarra» izen burutzat daramazkiten moldaera astezkorrai.

¡Begira irakurle ona, zer ederkiro mintzatu oi zan bere egintza guztiyakín Ramon Artola gízagajua!

Ni ere mintzatuoko nitzake aren gísara albanu bañan, aren luma; aren luma berarentzako bakarrik egiña nola baizan, giroztikakuak laka-rraguak diranak nere eskuetaratzén dira, bañan borondate aundiyaren

jabe nola naizen, beraren oroigarritzat zer edo zer esango det baldiñ buruko argitasun motel au osoro illuntzen ez bazait, ziñalpendu ditudan «Egun sentiya» eta «Illunabarra» errenkada ondorenguetan lenengo aipatzen detanarekin asiya emanaz.

¡Zuri; zuri «Egun sentiya» esan zizkitzun itz pozgarri abek!

*Onen etorrera da  
biyotz pozgarriya,  
duguen denbora zeru  
azpia garbiya;  
izarrak joaten dira  
galdubaz argiya,  
gelditzen dalarik, bat,  
ura illargia,  
itsasora jechiyaz  
lo artuban iya.*

*Beren izkeran agur  
egiñaz Jaunari,  
chori chikiyak asten  
dirade kantari;  
gaiñsuak ontan diran  
bitartean ari,  
indarrak laburtuta  
arratz illunari,  
jajoera ikusten  
zayo egunari.*

*Sortegiko aldean  
azaltzen da ontan,  
zillarrezko zinta bat  
Zerubaren mugan;  
gero ugariturik  
argitasuna an,  
balegoke bezela  
urrutiya sutan,  
eguzkiya sortzen da  
mendiaren puntan.*

¡Nola nezake nik orren egokitasun aundiyan esan, nigan gai onik arkitzen ez bada!

Au orla dalarik, ez nezake utzi tokirik eman gabe, egunaren muga edo «Illunabarra» zeña dan, otskaipetu edo musikaz On Raimundo Sarriegi errikošeme jatorrak antolamendu onez apainduba, eta onela diyona.

*Eguzkiya asten da  
jechitzen, jechitzen;  
dizdizera ederra  
zayola guchitzen;  
diamantezko printzak  
zaizkaneangaltzen,  
urrezko bola baten  
ichuran da jartzen,  
eta geldi, geldi da  
itsaspera sartzen.*

*Jiratzen dan denboran  
itsaspe aundira,  
paletako kolore  
guztiyak an dira;  
aiñ pintura politak  
goyen jartzen dira,  
ustetzen da zeruba  
auspez dala jira,  
eziñ azper liteke  
berari begira.*

*Sarri beltzez jantzirik  
zabalde guziya,  
chori chikiyen kantik  
ez da aitzen iya;  
izarrez apaintzen da  
zerupe garbiya,  
eta lazter denari  
emanaz argiya,  
azaltzen du goi-farol  
eder illargiya.*

¿Noiz arki-ko naiz Ramon Artola-k bere gai ugarriz beregandu zuben malla goitsura igua? ¿Ote nezake nik egiñ, ark egiñ oi zubenik? Ez; nere gayak guztiz motz gelditzen dira, ark utzi zigun bide legu-nari jarraitzeko.

Ez balitz irakurlea ez azpertziazatik *Altabizkarko kantu* Elizondo-n saritutakoari ere, egingo niyoke leku chiki bat errenkada abetan, bañan oraingoz, aipatzea bakarra aski dala diritzot; bada luzatze ez-kero, baderitzot geyegiya izango litzakiela irakurlearen ongayak neur-tzeko.

Len esan dedan bezela, ill onen ogeyan osatu dira lau urte, ipui-gille maisu, biurtsari bikaiñ On Ramon Artola ill zala.

Jaunak ontzat artuak izan ditezela aren egintza gureztat maitakit-suak diranak, eta saritzat opa dezayola zeruak leku on bat Ramon Ar-tola gizagajua-ri.

## NERE AITA MAITE ZANA-RI, OROITZA, JOSE ARTOLA-K

*¡Lau urte dira! izan  
zala eriotza  
arrezkero mindurik  
dabilkit biyotza;  
egunero egiten det  
zerura otoitza,  
ez aztutzeagatik  
aitaren otoitza.*

*Beraren inguruan  
pozkidaz nitzala,  
arren errañua zan  
pozezko itzala;  
¡¡Agostuen ogeiya!!  
fedetsu il zala,  
¡Jaunak bere lan onak  
Beragan ditzala!*